

Zangoza / 2025

KULTUR AGENDA

azaroa



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA ZANGOZA
PALACIO VALLESANTORO



Gobierno
de Navarra



Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, larunbatetan 19:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalara karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultur agenda jarrai dezakezu.

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: azaroaren 4tik aurrera Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Informazio-telefonoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

Telefonoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte Txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean, sarrera hor bertan edo internet bidez erosi bada ere. .

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.


Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora. Txartel-leihatilan ere adieraz daiteke erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es



- 1 La Erakusketa. «El Principito en el mundo»
(azaroren 16a bitarte) 4. Orr.
- 2 Ig
- 3 Al
- 4 As
- 5 Az
- 6 Og
- 7 Os
- 8 La Musika. «Sonidos de Cuba» 5. Orr.
- 9 Ig Dantza eta haur antzerkia. «Tá» 6. Orr.
- 10 Al «Gabonak Zangozan» lehiaketa. Lanak aurkezteko
epearen hasiera (azaroren 24a bitarte) 10. Orr.
- 11 As
- 12 Az
- 13 Og Musika Eskolako ikasleen kontzertua 9. Orr.
- 14 Os
- 15 La Antzerkia. «Ellas de oro» 7. Orr.
- 16 Ig
- 17 Al
- 18 As
- 19 Az Ipuin kontalaria. Gora Gora Fest!
«Haragi koloreko tximeleta begiradazalea» 8. Orr.
- 20 Og Erakusketa. «ONG y os lo cuento: realidades olvidadas»
(Abenduaren 7a bitarte) 4. Orr.
- 21 Os Zezilia Donea. Musika Eskolako bandaren kalejira 9. Orr.
- 22 La
- 23 Ig Zinea. «Vaiana 2» 9. Orr.
- 24 Al
- 25 As
- 26 Az Ipuin kontalaria. «Cuentos a baja temperatura» 8. Orr.
- Az Musika Eskolako ikasleen kontzertua 9. Orr.
- 27 Og
- 28 Os Horizonte elkarteko errondaila eta koruaren kontzertua 10. Orr.
- Zangotzarra aldizkariaren aurkezpenu 10. Orr.
- 29 La
- 30 Ig

Erakusketak

EL PRINCIPITO EN EL MUNDO



«EL PRINCIPITO EN EL MUNDO»

AZAROAREN 16RA BITARTE

Mertxe Ibañez Sola zangozarra Antoine de Saint- Exuperyren «Printze txikia» idazlanaren zale amorratua da. Urteetan zehar ale bilduma garrantzitsua bildu du.

Erakusketa honetan hainbat formatutan (haurrendako, braille, puzzle, pop-up) eta 660 hizkuntza, dialekto eta transkripzio baino gehiagotan (Star Wars filmeko lengoaian kasu) argitaratu den liburu hau erakutsi nahi du. Erakusketan, halaber, kartelak egonen dira azal batzuetako irudiekin eta barruko orriren batekin, ohikoak ez diren beste karaktere batzuk dituen idazkera mota ikus dadin.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«ONG Y OS LO CUENTO: REALIDADES OLVIDADAS»

AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 7RA

«Y os lo cuento» Nafarroako GKE bat da, osasun, hezkuntza eta oinarriko zerbitzuak emateko helburuekin Garapenerako Lankidetzaren proiektu desberdinak burutzen dituenen, eta bere helburu nagusietariko bat ahaztutako errealitateak ezagutaraztea da.

Argazki erakusketa honen bidez, Haitin, Kenyan, Guatemalan, Ekuadorren, Sierra Leonan eta beste askotan egin dituen proiektuetara joko dugu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.
Larunbatean, 19:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak eta musika Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA

«Sonidos de Cuba»

TREMENDO PIQUETE

LARUNBATEAN, AZAROAK 8

Taldekieak: Yosmel Lazo Lazo, pianoa; Guillermo Soloaga, baxua; David Lotero, bateria; Adur Lagunas, perkusioa; Xabier Blázquez, tronboia; Eneko Anaut, saxoa; Iñigo Cuenca, tronpeta; Yarian Yake, ahotsa; Laura González, ahotsa; Raul Martains, ahotsa.

Tremendo Piquete Kubako musikaren soinuak eta erritmoa Nafarroako bertako tradizioarekin uztartzen dituen proposamen musikala da.

Nafarroako eta Kubako musikariek osaturiko bandak kulturen arteko topagune bat sortzen du, rocka, timba eta saltsa bezalako erritmoen bidez, euskara eta bertako gaiak hitzetan txertatuz, berezko nortasun berezi bati forma emateko.

Proiektuak musika tradizionalaren muina errespetatzen du, bide berriak aztertzen dituen bitartean, egungo joeretara eta sonoritate berrietara hurbilduz.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika Karmengo Entzunaretoan



DANTZA-HAUR ANTZERKIA

«Tá»

**Haur eta Gazteendako Arte
Eszenikoen 2024ko Sari Nazionala.**

ESCENA MIRIÑAQUE

IGANDEAN, AZAROAK 9

Zuzendaria: Lorena Fernández.

Aktoreak: Pablo Venero eta Maria Canel.

«Tá» sentimenduz betetako obra da, emozioei balioa ematen diena. Gorputza eta onomatopeiak erabiltzen dituen ikuskizuna da, esaten dena ez ezik, transmititzen dena ere nabarmentzeko.

«Tá» obran bere bi pertsonaiek, bereziak, dibertigarriak eta sentikorrak direnek, jolasaren bidez hazkunde emozionalean oinarrituriko adiskidetasun harreman bat garatuko dute.

Ikusleak: 2 eta 9 urte bitarteko haurrentzat eta familientzat gomendatzen da.

Iraupena: 35 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

«Ellas de oro»

LA LÍQUIDA TEATRO

LARUNBATEAN, AZAROAK 15

Zuzendaria: David García-Intriago.

Interpretatzaileak: Santiago Vokram (biolin elektrikoa eta looper), David García-Intriago (aktorea).

«Ellas de oro» beren garaiko emakume aske eta jantziei begirada dibertigarri, bitxi eta zirraragarria da. Baita hain horrela ez ziren dama baboei ere, hitz egin ezin zutenen lengoaia isilari, haien ordezkari hitz mintzatzen ziren pertsonaiei eta mintzatzeagatik debekuei veranee, kateak hausten dituen hezkuntzari...

Komikoez beren existentzia beti zaila izan badute, imajina ezazue Urrezko Mendeko emakume komikoez...

Emaztea, lasaka edo moja izan zitezkeen aterabideak. Beste egoera bat egoten zen alabaina: bizitza txarreko emakume aktorea, baina askatasun onekoa! Bizio kaltegarria da antzerkia! Bizitza lizuneko jendea, eskorta eta bideetan lan egiten dutenekin!

Baina haiek... haiek... are gehiago!

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

Ipuin kontalaria



«Haragi koloreko tximeleta begiradazalea»
(Euskarazko ipuin kontalaria)

AINARA UNANUA

ASTEAZKENEAN, AZAROAK 19

Saio honetan hiru ipuin kontatuko dira: Marc Majewskiren «Tximeleta haurra», Desirée Bela-Lobedderen «Haragi kolorea» eta Marina Nuñez eta Avi Ofer-en «Begiradazalea». Zenbat aldiz pentsatu dugu kontatu digutena dela egia bakarra? Zenbat aldiz egin dugu hegan gure hego maiteak astinduz? Zenbat aldiz joan gara begiradak harrapatzera? Ipuinen bitartez begirada desberdin bat emango diegu istorio eta abenturei.

Ekitaldi hau Euskarabideak Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu duen Gora Gora Fest! egitarauaren barruan dago.

Ikusleak: familiak eta 3 urtetik gorako haurrak.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 18:30.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Laguntzailea: Zangozako Udala.



«Cuentos a baja temperatura»
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

SERGIO DE ANDRÉS

ASTEAZKENEAN, AZAROAK 26

Su motelean prestatutako istorioak, freskotasun eta umore guztia manten dezaten.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko haurrak. Adingabeek helduekin egon behar dute.

Ordua: 18:30.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Zinea



«Vaiana 2»

IGANDEAN, AZAROAK 23

Zuzendariak: David G. Derrick Jr, Jason Hand eta Dana Ledoux Miller.

Animazioa.

Bere arbasoen ustekabeko dei bat jaso ondoren, Vaianak Ozeaniako itsaso urrunetara bidaiatu behar du eta galdutako ur arriskutsuetan murgildu, aurrekaririk gabeko abentura bat bizitzeko.

Ikusle guztiendako egokia.

Iraupena: 99 minutu.

Ordua: 18:00.

Sarrerak: 3 €.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



«JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN» MUSIKA
ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA

OSTEGUNEAN, AZAROAK 13
ETA ASTEAZKENEAN, AZAROAK 26

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.



«JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN» MUSIKA
ESKOLAKO BANDAREN KALEJIRA ZEZILIA DONEA
OSPATZEKO

OSTIRALEAN, AZAROAK 21

Ordua: 18:00.

Abiapuntua: Musika Eskola.

Antolatzailea: Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskola.

Zangozako elkarte kulturalen ekitaldiak



Asociación MISTERIO de REYES de Sangüesa/Zangoza

«GABONAK ZANGOZAN» LEHIAKETA

AZAROAREN 10ETIK 24RA

Zangozako Eguberriei buruzko mikrokontakizun eta marrazki lehiaketa, Erregeen Misterioa Elkartek antolatua.

Informazioa eta oinarriak
misteriodereyes@gmail.com.

Aurkezteko lekua:

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

Antolatzailea: Erregeen Misterioa elkarte.



HORIZONTE ELKARTEKO ERRONDAILA ETA KORUAREN KONTZERTUA

OSTIRALEAN, AZAROAK 28

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera doan: gonbidapenak Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean hartu ahal izanen dira azaroaren 4tik aurrera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Laguntzaileak: Zangozako Udala.



ZANGOTZARRA ALDIZKARIAREN AURKEZPENA

OSTIRALEAN, AZAROAK 28

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Henrike II. Albretkoa Kultur Taldea.

Helduen euskalduntzea



HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Oinarriak eskuragai dituzue Kultur Zerbitzuan edo udaleko web-orrietan: www.sanguesa.es eta www.sanguesacultura.es.

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.